

LANDAJUELA ADISKIDEARI

Jaungoikoak bertsolari - doia emon ba'leust joan jakun Landajuela adiskide onari omenezko bertsoak egingo neuskioz, baiña ori ezin egiñaz, ona emen bere oroitzak berba askatuz.

Lagun on eta zintzoa, benetan maitagarria, betiraunera aurreratu jaku, negarrik, naigaberik ez nekerik ez dagoan egizko bizilekura.

ZER aldizkari onen azken-orrrialdean idazlan labur baiña maminsuak, ia beti euskalkien alde, adierazoz, gure euskerearen aberastasuna euskalkietan dagoala eta sasi-jakintsuak egin deben batu ori, arrapaladan sartu gura dauskuena, ondapen blastada bat izango dala, izkuntzak erritik sortu bear daualako, esan eta esan ekin eban.

Landajuela beargin tolesbako ta zintzoa zan eta egunero zortzi orduz kaletan lan egin ondoren, edatetxeetako barriketak alde batera itzi, urrutikuskiña alboratu eta atsegiña artu bearrean Euskeraza-



leak Alkartearen geletan sartuta duan bere laguntza biotz zabalez eskintzen eban ZER gure aldizkaria ondo ibilli zeitean eta bidalgoz, garaiz, izenpetuai eldu zeikioen.

Otzan, isil, zalaparta guztien arerio izan arren, zuzentasunaren

aurkako egoerak ez ebazan salatu barik izten. Batez be erantzukizunik-ezak eta griña itsuak sorturiko maltzurkeriak argitan ipinten.

Ezagutu genduan guztiok, egunero mai-ondoan jesarrita, arpidedunai biartzeko ZER'en aleak eraten ikusten genduan. Aren isillezko ontasunak miratu ta ederresten ginduzan.

Landajuela'ren laguntza irabazi-bakoak eskertzeko Euskerazaleak San Anton'en Mezea egin eban bere gomutapenez Igan-de bateko amabietan. On Klau-dio izan zan maiburuko, baita gure adiskide onen oroipen eder bat egin be.

Aita Jaungoikoaren betiraun-etxetik lurreko txango onetan bera lez lagun onak izateko lagundu daiskula.

LETONA'k

(5'n. orrialdetik)

kero parkatuta geratzen dira, bardin buruzagi ta guda-aging-tariak, len dauken irabazbidea kendu barik.

- Erabagi onein ondorenak nire aginbideak esaniko tokietan izkilluak izten dabezan uean asiko dira.
- Guda-Aldundegiko Jaunak eta ordezkioak berbatuta gerantzen dira euren aal-izatez erki onetako bakea urratu leikeen

matxinada ta burrukak alde batera izteko.

Amorebieta'n, 1872'ko orrillaren 24'an

FRANCISCO SERRANO'k

IDADZLEAREN OARRA:

Esan dodan idazki-liburuak amabi atzalburu dauz. ZER'en zuzendariak gura ba'leu eta Aldizkariaren irakurleak onartu ez-

kero, atsegiñaz emongo neukez euzkeraz orrialde orreitan agertzen diran jazokizunak.

LETONA'k

**IDADZKOLEAREN
ERANTZUNA:**

Gaia oso jakingarria da eta Letona J.'k ori egitea esker onaz artuko genduke. Maitxuaren, etxeen eta olakoen argazkiak be pozik argiratuko gendukez.

ZUZENDARIA'k